

Ikasturte amaierako agurra

Ikasturtearen amaierara iritsi gara, eta elkarrekin bizitako ikaskuntza, esperientzia eta une bereziak gogoratzeko garaia da. Ikasturte hau ere aukera izan da hazteko, harremanak sendotzeko eta komunitate gisa aurrera egiten jarraitzeko.



Ikasle, irakasle, langile eta familien ahaleginari eta konpromisoari esker, gure ikastola egunero eraikitzen eta aberasten jarraitu dugu.

Orain atseden hartzeko eta indarrak berritzeko garaia da. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko ikasturte honetan gurekin bidea egiteagatik.

Uda zoriontsua opa dizuet guztioi.

Zuzendaria.

Ikastola eguneko eskertza

Aurten ere, gure ikastolaren eguna arrakastatsua izan da, eta hori posible egin duzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu.

Lehenik eta behin, gurasoei, zuen inplikazioa eta lana funtsezkoak izan dira eguna aurrera eramateko. Zuen denbora eta ilusioa eskertzen ditugu. Aurten, gainera, testigu aldaketa izan dugu antolakuntzan, eta gurasooi tokatu zaigu ardura hori hartzea. Baina irakasleen laguntza eta aholkularitza ezinbestekoak izan dira guretzat, eta lana erraza izan da beraiei esker. Mila esker, beraz, irakasleei ere, urte hauetan guztietan egindako lanagatik eta aurten emandako laguntzagatik.



Bestalde, Ostalariei gure eskerrik beroenak helarazi nahi dizkiegu bazkari aparta eta atsegina prestatzeagatik eta erakutsitako profesionaltasunagatik.

Era berean, Udalari ere eskerrak eman nahi dizkiogu, gure ekitaldiak antolatzeko beharrezkoak diren espazioak eta baliabideak uzteagatik.

Aitzaga elkarteari ere gure esker ona adierazi nahi diogu, garbiketa lanetarako bere espazioa uzteagatik.

Garbitania/Atez-ateko langileei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, egunero egiten duten lanaz gain, egunean bertan emandako laguntzagatik.

Eta, nola ez, gure ikasleei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, bazkal ondorengo ekitaldian erakutsitako gogo eta ilusioagatik. Zuen parte-hartzea ezinbestekoa izan da eguna borobiltzeko.

Eskerrik asko guztioi!

ALEXIAfik INIKArA

26/27 ikasturtean, ikastola eta familien arteko kudeaketa INIKA programaren bidez egingo da, eta Alexia ez da aurrerantzean erabiliko.

Aurrerago, INIKAREN erabiltzailea eta pasahitzarekin batera bideo-tutorial batzuk bidaliko dizkizuegu, erabilera errazteko.

Erabiltzaile-izena eta pasahitza jasotzen dituzuen unean, INIKA mugikorreko aplikazioa deskargatzea gomendatzen dizuegu, ikastola eta familien arteko komunikazio egokia bermatzeko.

Edozein zalantza edo languntza behar baduzue idazkaritzarekin jarri harremanetan.



LIBURUTRUK 2026/2027 antolaketa

Datorren ikasturteko liburuen antolaketa egokia egiteko, aurretik izena eman zenuten Gelaburuen laguntza beharko dugu. Lehenengo bilera, **ekainaren 25ean, 15:00etan**, egingo dugu **ikastolako eraikin gorrian**. Bolondres gehiagorik balego, bertaratzea eskertuko genuke.

Guraso elkartea



2026/2027 ikasturterako zerbitzuetan izen-ematea

Garraio-zerbitzua

Datorren ikasturterako garraio-zerbitzua antolatzen hasiak gara. Gogoratu, izen-ematea urtero egin behar dela, erabiltzaile berria izan ala ez. Ibilbideak eta geltokiak izena eman duten erabiltzaileen beharren arabera egokitzen dira. Zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusiz gero, bete **GAUR** [galdetegi hau](#) Edozein zalantza edo argibidetarako usurbil@ikastola.eus helbidera zuzendu.



Goizeko zaintza

Egunero, ikasturte osoan, 8:00-9:00 orduetean Agerialdeko eraikinean zerbitzu hori eskaintzen da. Izen-ematea **GAUR** egin daiteke [galdetegi hau](#) betez.

Arratsaldeko zaintza

Irailean zehar, klase orduak goizetik soilik direnean, 14:30-16:30 orduetean zaintza eskainiko da, ikasle kopuru minimoa osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, bete mesedez **GAUR** [galdetegi hau](#)

Jangela

Datorren ikasturteko jangelako zerbitzua antolatzeko, familien beharrak zeintzuk diren jakin behar dugu, hori dela eta, mesedez, [galdetegi hau](#) **GAUR** betetzea eskatu nahi dizuegu.

Ikasle-agendak 2026/27 ikasturterako

Udarregi Ikastolak, aurten ere, 2026/27 ikasturterako ikasleentzat eskola-agenda argitaratu du. Euskara hutsean editatuta dago eta ikastolarako primeran etorriko zaie ikasleei! Salmenta prezioa **7,80 €-koa** izango da eta eskuratu nahi izanez gero, [galdetegi hau](#) bete beharko da, **ekainaren 30erako**.



Galdetegiarri, ordainagiria atxiki beharko zaio eta ordainketa Rural Kutxako honako kontu honetan egingo da: ES31 3008 0259 1120 8479 6727. Kontzeptuan ikaslearen izen-abizenak jarri.

Jakin, ikastolatik LH3. mailatik gorako ikasleei eskatuko zaiela agenda bat ekartzea.

HAUR HEZKUNTZA

2-3 urteko familientzat oharra

2026/27 ikasturtean zuen seme-alaba HH3n egongo da eta bertako familiei harrera eta egokitzapen prozesua azaltzeko asmoz, **ekainaren 23an, asteartea, arratsaldeko 16:00etan**, Agerialde eraikineko HH3ko gelan egingo den bilerara deitzen zaituztegu.

Bertan tutoreek egokitzapenaren inguruko azalpenak emango dizkizue eta zuen zalantzak eta galderak ere argitzeko aukera izango duzue.

Bilera euskaraz egingo da, eta itzulpena telegram aplikazioaren bidez egingo da. Beraz, itzulpena behar duten familiek telegram aplikazioa deskargatuta eta aurikularrak ekartzea eskatzen dizuegu.

Bilera amaitzean, jangela zerbitzua erabiltzeko asmoa duten familiek bertan gelditu behar dute, zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko.

Gogoratu bilera honetan ez dela zaintza zerbitzurik izango.

LEHEN HEZKUNTZA

Irteeraren kobrantza

Arotz Enea

LH1 eta LH 2ko ikasleek, Arotz Eneara egindako irteeraren kitapena egiteko kobrantza, **28,60€, gaur** egingo da.

Egonaldia ikasleko 65€ (50€ aldeaz aurretik ordaindu dira), autobusa 13,60€

Donostia: antzerkia

Gaur, LH 5eko ikasle bakoitzari **5€** kobratuko zaizkio, maiatzaren 29an Bilitx bertsolariari buruzko antzerkia ikustera egindako irteeragatik.



Ebaluazio-txostenak

Gaur, Lehen Hezkuntzako noten txostenak Alexia aplikaziora igoko dira.



Galdutako gauzak

Agerialdeko sarreran dagoen "arropa galduen txokoa" dagoen arropa, gaur Caritaseko ontzira eramango da.



Santixabeletako umeen eguneko ginkana

Santixabelak gerturatzeko ari zaizkigu eta LH 4ko gurasoak, ginkana antolatzen ari gara LH1, 2, 3 eta 4ko ikasleentzat. **Uztailaren 3an**, goizeko 9:45ean hasiko da udaletxean. Aurten maila bakoitzari kolore bateko kamiseta ekartzeko eskatuko diogu:

LH1: urdina

LH2: berdea

LH3: zuria

LH4: morea.

Ez ahaztu aldatzeko arropa ekartzea eta lepoan **koadrodun zapia!**

BIGARREN HEZKUNTZA

Ordutegia

Gaur, 12:30etan, DBH4ko ikasleen agur ekitaldia ospatuko dugu irakasle eta ikasleen artean.



Ebaluazio-txostenak

Astelehenan, ekainak 22, DBHko noten txostenak Alexia aplikaziora igoko dira.

